

NEKATUTA AL ZAUDE ENTZUTEN...

ODOLAK IRAKITEN AL DIZU  
ZURRUMURRU XENOFOBOAK  
ETA ARRAZISTAK ENTZUTEN DITUZUNEAN?

NI EZ NAIZ  
ARRAZISTA...BAINA...



"ZURRUMURRUEN AURKAKO"  
ESTRATEGIAK ETA ARGUDIOAK  
"ETORKINEK LANA KENTZEN DIGUTE"



# EZJAKINTASUNAK, OROKORTZEAK, DISKURTSO ARRAZISTAK ETA XENOFOBOAK SORTZEN DITUZTE

ESTEREOTIPOAK  
(PENTSATZEN DUGUNA)

AURREIRITZIAK  
(SENTITZEN DUGUNA)

ZURRUMURRUAK  
(ESATEN DUGUNA)

DISKRIMINAZIOAK  
(EGITEN DUGUNA)

*"Eta azkenean arrazista bihurtzen zara zeren azkenean horrela da, izan ere, beltz eta hegoamerikar mordo bat daude gizarte enpleguan lanean"*

"EZ BALEUDE" BEZALA JOKATUKO AL DUZU?

DISKRIMINAZIO BIHURTZEA ONARTUKO AL DUZU?

EDO NATHAGO DUZU "DESAKTIBATU" DISKRIMINAZIOA SAHETSEKO ETA ELKARBIZITZA ERRAZTEKO?

...BAINA... NOLA "DESAKTIBATU" DEZAKET ZURRUMURRU BAT?  
HASTEKO ERABILI ESTRATEGIA HAUEK!!!

BILATU HARREMAN KOMUNAK ETA MANTENDU JARRERA  
ETA DISKURTSO POSITIBOAK!!!

Guztiok izaten ditugu aurreiritziak eta estereotipoak, sarritan gure beldurrekin eta kezkekin lotura izaten dutenak. Saihestu beste pertsona bat barregarri uztea edo hura erasotua edo mindua sentitzea.

Soilik horrela eraiki dezakegu

elkarrizketa konstruktibo bat, zurrumuru bat "desaktibatuko" aukera emango diguna.

NIK ERE  
ENTZUN DUT, BAINA  
PENTSATU NUEN...

ULERTZEN DUT ZURE  
EGOERA, BAINA BENETAN  
USTE DUZU  
HORI DELA ARAZOA?...

NORK  
ESAN DIZU?

SAIHESTU PRESAKA IBILTZEA, GALDERAK  
EGIN, EMAN BIDEA JAKIN-MINARI  
ETA SUSTATU IZPIRITU KRITIKOAK!!!

NON  
ENTZUN DUZU  
HORI?

Momentu batean zurrumurru bat "desak-  
tibatuta" ahal izango duzula pentsatzea ez da zuzena. Per-  
tsona batek zerbait zalantzan jartzea lortzen baduzu jadanik  
arrakasta itzela da eta gainera, zure iritzia zuzenean inposatzen saiatzea baina  
eraginkorragoa izango da.

ZIUR  
AL ZAUDE HORI  
HORRELA DELA?

BERTAKOOK  
ENTZIERROAN LASTER EGITEN  
DUGU ETA SANGRIA EDATEN  
DUGU?

ZALANTZAN JARRI  
OROKORTZEAK!!!

PERTSONA BATENGATIK  
"DENEK" ORDAINDU  
BEHAR AL DUTE?

Galdetu kasu zehatz batek kole-  
ktibo osoa identifikatzen duen  
edota egoera zein jarrera zehatz  
baten arrazoiak pertsona bati soilik dagozkion, edo-  
ta tartean bestelako arrazoiak dauden (pertsonalak,  
sozio-ekonomikoak, politikoak, legezkoak, etab.)

ZEIN DA ARAZOA,  
"GERTATU DENA" EDO  
"KANPOKOA IZATEA"?

HORRELA LORTUKO DUZU ELKARRIZKETA BAT IZATEA  
"ROLLO TXARRIK GABE" ZURRUMURRU HORI ZABALDU DUEN PERTSONAREKIN!

...ETA HALABER ONDORENGO GALDERAK ETA ARGUDIOAK ERABIL DITZAKEZU!!!



# "ETORKINEK LANA KENTZEN DIGUTE"

**Hori esaten duena "ziurtatzen ari da" pertsona atzerritarrak:**

- Lanari dagokionez "hemengoekin" lehia desleiala eta insolidarioa egiten ari direla.
- Eplegu bat lortzeko orduan lan-merkatuan posizio hobea eta abantailak dituztela.
- Kaleratuak izan diren "hemengo" pertsonak ordezkatzeko kontratatuak izaten direla.

**Adierazpen horiek zalantzan jartzeko, ondorengo galderak egin ditzazkegu:**

- Ezagutzen al duzu norbait beste lurralde batean lanean dabilena? Zure ustean herrialde hartako jendeari lana kentzen ari al zaio?
- Benetan uste al duzu enpresek "hemengo" pertsonak kaleratzen dituztela pertsona "atzerritarrak" kontratatuzko?
- Ba al zenekien atzerriko pertsonak langabezia eta laneko prekariedade egoera okerragoa jasaten dutela? Ezagutzen al duzu norbait kontratatu ez dutena "hemengo izateagatik"?
- Zein dira kanporaketen benetazko arrazoiak?



GALDERA HORIEK ABIAPUNTUTZAT HARTUTA, ZURRUMURRU HORI DESMUNTATZEKO ONDORENGO ERANTZUNAK ERABILI AHAL IZANGO DITUGU:

**1. Ezagutzen al duzu norbait beste lurralde batean lanean dabilena? Zure ustean herrialde horretako jendeari lana kentzen ari al zaio?**

*Guztiok daukagu eskubidea bizitza aukera hobeak bilatzeko. Pertsona langile bezala, errealitate eta interes komunak partekatzen ditugu (jatorria, etnia, arraza, kultura, ... alde batera utzita).*

**2. Benetan uste al duzu enpresek "hemengo" pertsonak kalera-tzen dituztela "atzerriko" pertsonak kontratatzeke?**

*Enpresek EZ dituzte "hemengo" pertsonak kalera-tzen "atzerrikoak" kontratatzeke. Salbuespenak beti aurki ditzakegu baina "hori" baino ez dira, salbuespenak. Eta edozein kasutan erantzukizuna ez dagokio langileari, baizik eta enpresari, laneko erreforma ezberdinei, etab.*

**3. Ba al zenekien atzerriko pertsonak jasaten dituzten langabezia eta laneko prekarietate egoerak larriagoak direla? Ezagutzen al duzu norbait kontratatu ez dutena "hemengoa izateagatik"?**

*Langabeziak guztiongan du eragina, baina atzerriko pertsonak izan dira euren enpleguak galtzen lehenak (euren langabezia tasa ia hirukoitza da biztanleria autoktonoaren tasarekin konparatuta). Gainera, sarritan enplegu berri bat lortzeko zailtasun (diskriminazio) gehiago jasaten dituzte.*




# ARGUDIOAK

## **1. Ezagutzen al duzu norbait beste lurralde batean lanean dabilena? Zure ustean herrialde horretako jendeari lana kentzen ari al zaio?**

*Guztiok daukagu eskubidea bizitza aukera hobekak bilatzeko. Pertsona langile bezala, errealitate eta interes komunak partekatzen ditugu (jatorria, etnia, arraza, kultura, ... alde batera utzita).*

- Atzerriko pertsonak autoktonoekiko lehia desleiala eta insolidarioa egiten ari direla esatean, non hasten eta amaitzen da solidaritate ezaren logika hori? Zergatik ulertzen dugu lanpostu bat lortzeko nahi hori lehia desleial modura? Arrazoiaketa horren arabera konturatu behar genuke "hemendik" EBetara edo munduko beste herrialde batzuetara lanera irteten diren pertsonak ere, "beste herrialde horietako pertsona autoktonoekiko" lehia desleiala egiten ari direla.
- Aztertu beharko genuke zergatik ematen diogun lehentasuna atzerriartasunari, eta ez pertsona bezala bizi eta lanerako eskubideei. Zentzu horretan, pertsona horiek honaino etorri behar izateko arrazoiak aztertu beharko genituzke (desberdintasunak iparra-hegoa edo zentroa-periferia, aukeren bilaketa, gerra, gatazkak, jazarpen politiko edo soziala, klimaren aldaketa). Modu berean giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren arabera onartutako mugimendu askearen eskubidea planteatu beharko genuke.
- Eta bestetik, gure buruari galdetu zergatik deitzen ditugun oraindik "etorkinak" edo "atzerriarrak", "hemen" jaiotako atzerriko pertsonen seme-alabak.
- Abiapuntu horretan oinarrituta, azpimarragarria izan liteke pertsona "autoktonoak" eta "atzerrikoak" langile modura uztartzea. Gizarte posizio bat, interesak, kezak eta errealitateak partekatzen ditugu, langile-talde bezala hasiera batean pentsa genezakeena baino alde komun askoz ere gehiago ditugu (jatorria, etnia, arraza, kultura, etab. alde batera utzita). Aitzitik, aztertu egin beharko genituzke botere politiko eta ekonomikoetan dauden interesak, hain zuzen antzeko errealitateak eta arazoak parteka-




tzen dituzten pertsona langileen artean norgehiagokaren diskurtsoa bultzatzen saiatzen direnak.

## 2. Benetan uste al duzu enpresek “hemengo” pertsonak kalera-tzen dituztela “atzerriko” pertsonak kontratatzeko?

*Enpresek EZ dituzte “hemengo” pertsonak kaleratzen “atzerrikoak” kontratatzeko. Salbuespenak beti aurki ditzakegu baina “hori” baino ez dira, salbuespenak. Eta edozein kasutan erantzukizuna ez dagokio langileari, baizik eta enpresari, laneko erreforma ezberdinei, etab.*

- Argudio hau justifikatzeko “Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa”-ren ondorengo adierazpena erabil dezakegu, zeinaren arabera: “Okupazio galeraren inguruko datuek (...) egiaztatzen dute krisia ez dela eragiten ari langile espainiarrak atzerriko langileengatik ordezkatzea. Espainiako langileek okupazio bat galtzen duten ia bakoitzeko, atzerrikoek ere galdu dute”.
- Bestalde, hainbat kasutan planteatu ahal da **atzerriko pertsona gehienak pertsona “autoktonoak” ez bezalako sektore eta lanpostuetan egiten dutela lan**. Enplegu eta Segurtasun Ministerioko Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren arabera, etxeko zerbitzuak, adineko pertsonen zaintza, ostalaritza, enpresa zerbitzuak, erakuntza sektoreko prestakuntzarik gabeko lanpostuak, etab. bezalako sektoreak eta okupazioetan aritzen dira atzerriko pertsonak. Era berean, planteatu ahal da atzerriko pertsonen estatuen osotasunean aberastasun garbia sortzeko bidea eman dutela, eta aldi berean pertsona horien jarduerak mendekotasunaren inguruko arreta bezalako sektore batzuen iraunkortasuna bermatzea ahalbidetu duela.
- **Baina, pertsona autoktonoen zeregin berdinak beteko balituzte?** Kontuan hartu behar da bizitzeko eta lanerako aukeren hondamendiak, lehiaren hazkundea ekarri duela sektore jakin batzuetan, jatorri autoktonoa eta atzerritarra duten pertsonen artean. Kasu horretan, **zentzurik izango al luke argudio hau erabiltzea, bereziki zurrumurru hau erreproduzitzen duen pertsona batekin, hain zuzen atzerriko pertsonen presentzia nabarmenagoko sektoreren batean enplegua bilatzen ari denean?** Horregatik, argudio hau kasu



oso zehatzetan erabili beharko litzateke eta argudioaren finkapena aurreko ataletan oinarritu, bereziki pertsona langileen eskubide, errealitate, interes eta kezka komunak aldarrikatzen dituen eta enplegu gabeziaren arrazoi errealak salatzen dituen bultzatuz.

### **3. Ba al zenekien atzerriko pertsonak jasaten dituzten langabezia eta laneko prekarietate egoerak larriagoak direla? Ezagutzen al duzu norbait kontratatu ez dutena “hemengo izateagatik”?**

*Langabeziak guztiongan du eragina, baina atzerriko pertsonak izan dira euren enpleguak galtzen lehenak (euren langabezia tasa ia hirukoitza da biztanleria autoktonoaren tasarekin konparatuta). Gainera, sarritan enplegu berri bat lortzeko zailtasun (diskriminazio) gehiago jasaten dituzte.*

- Lehenik eta behin, planteatu ahal dugu enplegu gabeziak atzerriko pertsona zein autoktonoengan eragina duela, izan ere, langileok ez-jakintasan eta babesgabetasun egoera batean aurkitzen gara. Gogoratu behar dugu enplegu gabezia oro har sistema ekonomikoaren, lan-merkatuaren, laneko erreformen nora ezaren eta bereziki enpresetako langileen gestio politiken eraginez gertatzen ari dela.
- Hortik abiatuta, kontuan hartu behar da atzerriko pertsonak direla bereziki kalte handienak jasaten ari direnak krisi ekonomikoaren eta langabeziaren eraginez. Nafarroako langabezia tasa betidanik altuagoa izan da atzerriko pertsonentzat, biztanleriaren kolektiboarentzat baino. 2002 eta 2014 artean langabezia tasa hirukoitzu zen biztanleriaren kolektiboarentzat. Aldiz, atzerriko pertsonentzat 5 aldiz biderkatu zen.
- Eta amaitzeko, planteatu ahal da atzerriko pertsonak (hemen jaiotako euren seme-alabak barne) diskriminazio osagarriak jasaten dituztela bai kontratazioetan eta bai hautaketa prozesuen eskuragarritasunari dagokionez, jatorri, etnia edo arraza zehatz batekoak izateagatik bakarrik.